

Finkatzen Programa



Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberak eta Vital Fundazioak argi daukate ekonomia suspertzea eta enplegua sortzea direla Arabaren bi erronka nagusiak. Bada, enpresa-sareak enplegua sortzeko zailtasunak dituen aldetik, Arabako ekonomia bultzatzeko, ezinbestekoa da enpresa berrien sorkuntza sustatzea, eta, horretarako, behar-beharrezkoa da erakundeen arteko lankidetzeta.

Finkatzen Programa Arabako Ganberaren Enpresak Sortzen eta Finkatzen Laguntzeko Zerbitzuaren bidez kudeatzen da. Horiek horrela, Ganberak ekintzaileari behar duen laguntza eskaintzeko ardura hartzen du bere gain, enpresa-proiektu bat garatzeko erronkan arrakasta izan dezan.

Vital Fundazioak, bestalde, 20 poltsa ekonomiko ematen dizkie hitzarmen honi dagozkion programetan parte hartzeko hautatzen diren proiektuei.

Ezaugarriak

- Azalpena: Hautatutako 10 enpresa sortu berriek honakoa jasoko dute:
 - 1.250 euro (PFEZ atxikipenari lotuta) poltsa ekonomikoa, Vital Fundazioak emandakoa.
 - Arabako Ganberaren Enpresak Sortzen eta Finkatzen Laguntzeko Zentroan banakako aholkularitza eta jarraipen programa batean parte hartzeko aukera.
- Talde onuraduna: berriki sortu diren enpresak, oraindik enpresa-proiektua finkatzeko

bidean daudenak.

- Eskakizunak:
 - Eskaera aurkezteko unean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman zenetik gehienez 2 urte igaro izana eta/edo enpresa-jarduera abiarazte-fasean egotea.
 - Enpresa berriaren egoitza soziala eta fiskala Araban egotea.
 - Zerga-arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharren ordainketak egunean izatea.
 - Mikroenpresa izatea (10 langile edo gutxiago).
 - Enpresa-proiektuaren garapenean zuzenean parte hartzen duten pertsona fisikoez osatuta egotea gehienbat.
 - Enpresa-proiektua finkatze-fasean egotea.
- Balorazio-irizpideak: 10 proiektu onuradunak aurkeztutako proiektu guztien artean puntu gehien lortzen dutenak izango dira, honako irizpide hauei jarraiki
 - Proiektuaren berrikuntza-maila: 10 puntu gehienez.
 - Proiektuaren bideragarritasun- eta potentzialtasun-maila: 15 puntu gehienez.
 - Talde sustatzailearen gaitasunak, esperientzia eta inplikazioa: 10 puntu gehienez.
 - Abian jarri zenetik enpresa-proiektuak izan duen ibilbidea: 15 puntu gehienez.
 - Aurkeztutako proiektuaren definizio-, argitasun- eta kalitate-maila: 10 puntu gehienez.

Eskaerak

- **Eskaerak Arabako Merkataritza eta Industria Ganberako** egoitzan egin behar dira (**Dato k. 28**).
- **Eskaerak aurkezteko epea** 2019ko irailaren 20an amaitu zen.

Informazio gehiago www.caramaradealava.com webgunean (kanpoko esteka).